

Aretxagazeta

Aretxabaleta ● 2000ko abenduaren 1ean ● 203. zka.



Jesus Peña, euskal idazlea

Iturririk iturri: Mariasun Bengoa • Iritzia: Inma Miguel • Kirolak: Aitor Alcaide

OPEL CORSA BERRIA



**Ez duzu prezio
hobean beste
kotxerik aurkituko**

OPEL CORSA BERRIA

OPEL 

Garaje Talleres Norte, s.l.

Basabe Poligonoa A-13 20550 ARETXABALETA

Tel.: 943 71 20 03 ● Fax: 943 77 16 20

AZKARATE

AROZTEGIA

ARETXABALETA 943 77 01 24
BERGARA 943 76 47 19


**Ateak,
leihoak,
horma armairuak,
tarimak
eta
parketak**

Ze erizten dotzazu herriko elizia konpontzeko herritarrei 30 milioi pezeta eskatzie? Irailetik hona 19 milioi lortzie ze pentsetan jatzu?



Francisca Alzola

Elizia danona danez, oso ondo pentsetan jat herritarrei dirua eskaketia. Jendiak ondo erantzun dau oin artian.



Jose Luis Errasti

Herrixek bere partie jarri biher dauela pentsetan jat, auzuetan auzotarrek jarri doun moduen. Momentuz hamazazpi milioi jasotie erantzun ona dala uste dot.



Carmen Alvarez

Danon artean lagundu ba-geike, ondo dau hori. Denbora gutxixen diru dexente lortu dala uste dot.



Juan Jose Astondoa

Herrixen etxie da, eta orduen herrixek berak ze dirue jarri biheko lauke. Oin artien lortu dana kopuru politte da.

ESKUTITZAK

solairuan).
Gure partetik besterik ez, abenduaren 22a arte, ondo izan.

Aretxagazeta aldizkaria

HURRENGOA ABENDUAREN 22AN

Gaur etxean jaso duzuen ale hau astebete aurreratu dugunez, hurrengoa abenduaren 22koa izango da. Tartean ez da beste alerik izango, baina zuen artean Goienkaria izango duzue. Jakin, bestalde, aurtengo azken zenbakia urtekaria izango dela. Urtean izan den guztiaren berri kontutuko da bertan eta ohikoa baino lodiagoa izango da. Hemendik aurrera, bestalde, Aretxagazeta ostiraletan kaleratuko da eguenean behar. Horrekin batera, Aretxagazetak bazkideontzako informazioa emateko ordutegia jarriko du. Astelehenetan 20:00etatik aurrera edozein argibide emateko zuen zain egongo gara Aretxagazetako egoitzan (Durana, 11 2.

Aretxagazeta

203. zenbakia
2000ko abenduaren 1ean.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tel: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Lehendakaria: Edorta Mendietta.
Erredakzio-konseilua:
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.
Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna:
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
Kolaboratzaileak:
Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala.

Banatzaleak:
Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo.

Inprimategia:
Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



DENDA ETA LANTEGIETAKO KARTOIA ATEZ ATE BATUKO DA

Eguakotz honetan bertan, Debagoieneko mankomunitateak kartoia batzeko zerbitzu berezia jarri du merkataritza eta enpresa txiki-kientzat. Kartoia txukun eta behar bezala pilotuta etxeko beste zaborrak uzten diren lekuan jarri behar da. Zaborra batzen den egun beretan atera behar da gainera, Aretxabaletan martitzen eta eguenean, arratsaldeko 7etan. Mankomunitateak, kartoia ez duela plastiko, poliespan edo metalezko osagirik izan behar gogorazti gura du, bilketak bestela ez du baliorik izango.



Arrasateko Eroskin bidezko merkataritza denda bat dago.

Bidezko merkataritza denda jarriko da abenduan

Datorren abenduaren 16 eta 17an bidezko merkataritza denda txiki bat jarriko da Aretxabaletan. Hego Amerika, Asia, eta Afrikako hainbat herrietako artisauek egindako produktuak egongo dira salgai bertan: kafea, txokolatea, erropa...

Bidezko merkataritza, merkataritza alternatiboa eta duina da, ekonomiaren kolonialismoa hautsi gura

duen merkatu-politika, berdintasunean oinarritutakoa eta ez esplotazioan. Bidezko merkataritzak, langileen soldata duina eta zuzena dela ziurtatzen du eta era berean, talde ekoizleak bere komunitateko biztanle guztien garapena bilatzen du, gizon-emakumeen arteko berdintasuna ziurtatu eta antolaketa guztiz demokratikoa jarraitu.

KANPO ZORRA DEUSEZTATZEAREN ESKA-ERAERAREN AURKAKO ERASO BORTITZA

Joan zen domekan, azaroak 26, kanpo zorra deuseztatzearen aldeko herri sarea Madrilgo Diputatuen Kongresu aurrean protesta egiten ari zela poliziak bortizki erasotu zuen. Martxoaren 12an egindako herri kontsultan, Aretxabaletan ere egin zen eta 866 lagunek hartu zuen parte, jasotako milioitik gorako botuei kasu egitea eskatu gura zen protestaldi baketsu horrekin. Polizia inolako arrazoi barik hasi zen erasotzen eta 8 atxilotu eta 100 zauritu baino gehiago izan ziren.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



Zubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA

UDALEKO ARTXIBO HISTORIKO ETA ADMINISTRATIBO ANTOLATZEN ARI DIRA

Orain hilabete hasita udaleko artxibo historiko eta administratiboa antolatu eta informatizatzen ari da Zarauzko enpresa bat. Antolaketa horren arrazoiak bi dira: batetik, artxiboak zeukan berrizteko premia, eta bestetik, dokumentuak gordetzeko leku falta. Hiru langileren artean dokumentuak jaso, banatu eta datu base batean gordetzen ari dira. Dokumentu asko bota ere egin dituztela komentatu dute, hirigintza eta hazienda sailekoak batez ere, ez baitago dena gordetzeko lekurik. 2 milioiko aurrekontua dauka antolaketa lan horrek eta Gabon ostean bukatzea espero da.



Musika, liburuak eta Gabonetako ikuskizunak izango dira nagusi aurten

Aurtengo negu kulturaleko ekintzak prest daude hasteko

Urtero legez, aurten ere udaleko kultura sailak, Leizarra musika eskola eta Loramendi euskara elkar-tearekin batera, negu kulturaleko agenda prestatu du. Abenduaren 6an hasiera eman eta urtarrilaren bukaera arte hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera egongo da.

Musika zaleentzat hainbat ekintza egongo dira: musika eskolako ikasleek emango dituzten kontzertuak, txistularien kalejira eta kontzertua, eta Aretxabaletako akordeoi orkestraren kontzertua. Horrez gain, Sergei Voitenko akor-

deoilari errusiar famatuak ere kontzertu bikaina eskainiko du abenduaren 6an parrokan.

Liburuen aurkezpenak ere izango dira aurtengo neguan: batetik, Erlantz Urtasuren "Euskara eta historia" eta bestetik, Aitor Antxia, Lorentxo Peña, Jesus Atxa eta beste hainbat kolaboratzailek egindako "Jesus Peña".

Urteroko ekintzak ere ez dira falta izango: Olentzero, Bizar Zuri, Errege kabalgata, eta nola ez, 12 urte bitarteko umeentzat Poxpolin Parkeko jolasak kiroltxean.

LIBURUTEGIAK KARNETAK ATERAKO DITU ELKARTEENTZAT

Aretxabaletako liburutegiak herriko elkarteentzat ere karnetak ateratzea erabaki du. Elkarte batek baino gehiagok, liburutegitik liburuak mailegatu hartzeko interesa izan dezakeela pentsatuta hartu da erabakia. Beste bazkide guztientzat dauden baldintza berberak egongo dira elkarteentzat ere, bi aldaketa baino ez: liburuak hamabost eguneko epean itzuli beharra izatea eta bi liburu hartu beharrean bost har daitezkeela batera. Karnet hori lortzeko, elkarteko kide batek liburutegitik pasatu besterik ez du.

SAN MARTIN-SAN JOSE KOFRADIXAKO BATZARRA

Abenduaren 8an, San Martin-San Jose Kofradixako urteroko batzar orokorra egingo da. Gai ordena barruan ekintza txostena, eta kontu balantzea aztertuko dira. Horrez gain, zuzendaritza taldea berriztuko da, batzordetik lau kide aterako dira eta beste lau lagun aukeratu beharko dituzte sartzeko batzartutakoek.

SUKALDEKO ALTZARIEN ETA HORMA ARMAIRUEN FABRIKA



- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE Tel.: 943 71 25 08

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83



■ IPUINAK LIBURUTEGIAN

Jose Mari Carrere ipuin kontalaria liburutegian izan zen joan den azaroaren 23an. Almen eta Kurtzebarri eskolako ikasleei ipuinak kontatzen etorri zen. Bosgarren mailako hiru talde egon ziren danera. Neska-mutil guztiak gustura eta pozik entzun zituzten erreteriarren kontuak. Izan ere, Carrerek betiko ipuinei gaurkotasuna eman eta bizitu egiten zituen. Horrez gain, beldurrezko ipuinak ere ateraziren bere ahotik.

Aretxarte merkatarien elkarteak aukeratu du bere logotipoa

Iratxe Bengoa izan da Aretxartek, Aretxabaletako merkatarien elkarteak, antolatutako logotipo lehiaketako irabazlea. Hamalau lan aurkeztu ziren eta epaimahaikoen esanetan, hiruren artean egon da erabakia hartu beharra. Azkenean, haritzaren hostoa agertzen duen Iratxeren logotipoa izango da Aretxarte merkatari elkarte

txarte merkatari elkarteak aurkeztuko duen irudia.

Gaur egun herriko 40 komertzio daude Aretxarte elkartearen sartuta, datozen egunotan, gainera, elkarteak kide diren adierazlea jarriko dute komertzioak ateetan. Gabonetara begira, loteria ere aterako dute bezeroen artean banatzeko.



GABONETAKO ARGIAK JARTEN HASI DIRA

Gabonetarako gero eta gutxiago falta da eta horrela adierazten digute telebistako panpin eta turroi iragarriek. Gure herrian ere inoiz baino aguruago hasi dira zuhaitzetan argiak jarteko prestakuntza lanak, beti azkenengo orduan ibili beharrean. Aurten, gainera, bonbilla gehiago erosi dira eta herrian zehar banatutako bost bat zuhaitz behintzat apainduko dira. Horrez gain, plazako balkoian ere jarriko dira argiak.



FOTO
Urkiola
ARGAZKIAK

Argazki denda

Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20 ARETXABALETA

Estudioa
Jaunartzeak
Ezkontzak
Argazki digitalen lanak

Albunak
Argazki kamarak
Markoak...

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

HAURRAK



Umeendako
moda

Lezama merkatal
zentrua, 15
Tel.: 943 77 14 86
ARETXABALETA



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28


ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA



Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59



314 apartazio egon dira, horietatik 8 kanpoan bizi diren herriko seme-alabenak dira.

30 miliotik gora eman ditu herriak parrokiako berritze lanak ordaintzeko

Datorren domekan bi hilabete beteko dira Aretxabaletako Andre Mariaren Zeruratze Parrokiako berrikuntza lanak hasi zirela, eta elizaren kanpoaldeko berritze lana aurrera doa. Lehenengo fase honetan, teilatuko bigak aldatu dira, baita teila azpiko oholeria jarri ere. Egurrezko estruktura tratatzeaz gain, teila kendu da barria jarteko, eta kanpoko horma garbitzen ari dira orain. Kanpoaldeko konponketak abendu bukaerarako bukatzea espero da hasieran jarritako data

beteaz. Gabonetako ospakizunak parrokian bertan ospatzeko arazorik ere ez da egongo.

314 apartazio

Herriari eskatu zaizkion 30 milioiko diru batzea ere oso ondo doa. Bi hilabetetan 314 apartazio egon dira, horietatik 8 kanpoan bizi diren herriko seme-alabenak, eta guztira 20.056.550 pta. batu da.

Antonio Astigarraga parrokoaren esanetan normala da hasieran diru kopuru handia batzea "apartazioa,

eskaera egin eta lehenengo hilabeteetan egiten da normalean, ondoren poliki-poliki gutxituaz joango dela uste dugu. Dena dela, ez daukagu herritarren kexarik". Herriko enpresa eta komertzioei ere egin zaie diru eskaera baina oraindik lau enpresak baino ez du eman dirua "herriko komertzio eta enpresen erantzunaren zain gaude" dio Antoniok. Bi hilabetetan lortutakoa ez dago batere txarto, ea falta diren 10 milioiak ere laster batean batzen diren.

■ **GERNIKA PLAZA TXUKUNTZEA ONARTU DA** Astelehenean izandako ohiko osoko bilkuran, Gernika plaza txukuntze-ko egin beharko diren lanen oinarriak onartu ziren. Momentu honetan Gernika plaza bizitza bako plaza da, eta astelehene-tako azoka bertatik kendu zenetik oraindik gehiago. Udalak egindako proiektuaren arabera, plaza txukundu eta umeentzako jolas lekua jarriko da. 26 milioi erabiliko dira horretarako.

■ BOLIBARKO ERREKATIK EZ DATOR URIK

URKULURA Azkenengo hilabete honetan euria erruz egin badu ere, Bolibartik datorren errekatik ez da urik heltzen Urkulura. Erreka hori Arientzako bidegurutze parean sartzten da Urkuluko urtegiaren baina lehortuta dago egunokaz. Horren arrazoia, Eskoriatza eta Arkarazo arteko ur hodia apurtuta egotea da. Gipuzkoako ur partzuegoak badu arazoaren berri eta aste honetan bertan, konpontzea espero da Bolibartik datorren ur hori guztia bidean ez dadin gal. Urkuluko urtegiara ur dexente heltzen da bai Bolibarko errekatik, bai Urbaltzetik.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51 / 608772867

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
*Lyonel
Arquero*

Dekorazioa:
*Soraya
Arquero*

BEIRALAN



- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Horma armairuak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak
- ◆ Beirate "fusing"ean kalitate handia

KRISTALDEGIA

Herriko plaza, 8 behea
☎ 943 79 81 78 / 6700997274

Badihardugu elkartearen sorrera

Bailarako hainbat euskalzaleren eskutik Badihardugu elkarte sortu berria da Eibarren. Euskara elkarte berri horren helburua Deba Ibarreko euskalzaleen indarrak batu, eta dannon artean gure herriko euskalkiari bultzada bat ematea da.

Elkarteko kideek jakin eragin digutenez, "azken urtiotan asko aurreratu dogu euskera batuai esker, idazterakuen, asko ugerittu die euskaldun barriek, eta euskeriek prestijiu lortu dau". Dana dala, euskara zuberotarrekin eta napparrekin erabiltzeko bakarrik ez dela gehitzen du elkarteak, baizik eta, "geure herrixen eta inguruetan ebalteko be bada, euskera batuen al-

dien egokixague da geure betiko berbakerie".

Beste alde batetik, azken urteotan erabili den euskara batua oso berezia eta gure euskalkitik oso desberdina izan dela ere azaltzen dute elkarteko kideek. Horrekin batera, txarra zelakoan guraso askok ez diete seme-alabei erakutsi. Elkartearen esanetan, "oin

hasi gare horren guztiorren ondorena ikusten: gazterixiek egitten dauen euskerie kaxkarra da. Gaztiei eurei be pobrie eta indder bakue pentsetan jake, eta erdarara joten daue sarri". Bukatzeko zera gehitzen du Badiharduguk: "euskerie ebalteko dala, eta erabillixaz, gozetako eta eroso egoteko. Derrigorrez aldaketa batzuk egin biherko dittuau, hori helburuoi lortzeko".

KEPA AKIXOK ESKULTURA ERAKUSKETA JARRIKO DU BIARRITZEN

Kepa Akixo, 50 urte inguruko atxabaltarra da, Aki-xutarren lehengusua. Politika kontua dela eta aspaldi joan zen Biarritzera bizitzera, beraz, askok ez dugu ezagutzen. Noizbehinka etortzen ei da Aretxabalera, iaz esaterako kuadrilakoek egindako afari batera etorri zen.

Kepa eskultorea da, afizioz egurra lantzen hasi eta erakusketa bat baino gehiago egin ditu. Orain, azkenengo 25 urteetako eskultura erakusketa jarriko du Biarritzen. Datorren abenduaren 16an izango da hau, eta Aretxabale-tatik joan gura duen guztia pozik ikusiko du bertan.



Badihardugu
Deba Ibarreko Euskera Elkartia

Badihardugu elkarteak gure euskalkiari indarra ematea du helburu, euskara bera sendotzeko.



Parkak, berokiak,
gabardinak,
amerikanak...

50 urte
Atxabalta
jazten...

brooks

ASENSIO

Filosofia apur bat

Iritzi artikulua idazteko eskatu didate. Egia esan, asko kostatzen zait boligrafoa hartu eta idazten jartea. Pintzelarekin izanez gero, aspalditxo bukatuta izango nuen eskatutako lana, baina lumaz!

Gauza askori buruz iritzia eman dezaket. Baina zeri buruz ordea? Zerrendatxo bat egin dut hemen, zuk zeuk irakurle ere hausnartu eta pentsa dezazun.

Kutsadura akustikoa, txakurren kakak, familia ugaria, aparkalekuak, gaztea (Atxabaltan %16a 15-25 urte bitartean kokatzen da), aisialdia, beldurrak, heriotza, bizitza, etabar.

Baina zu irakurtzen ari zaren horrek baino iritzi desberdinagorik ez dudanez, eta denbora galtzea gustatzen ez zaidanez, gure herrian zerk min ematen didan esango dizut, ea nirekin bat zatozen: txakurren kakak lorategi guztietan ikustea eta zapaltzea, nagusiak haurren arazoetan sartzea, ekintza kulturalak izorratzea (jendea tablatuan gora eta behera ibiltzea, artistak zirikatzea, hezituta dagoena kentzea...), lurra paperez eta zikinkeriaz beteta ikustea, herria apurtuta ikustea, euskaraz dakiena gaztelaraz aritzea, matxismoa eta sexismoa, Beroa lantegiak egiten duen zarata.

Eta horrez gain, kuzkuzeroek amaratzen naute gehien.

Baina dena den, niri gustatzen zaidan hori konpontzea ez da hain erraza. Instituzioek ezer gutxi egin dezakete, nahiz eta beti entzun "udaletxeak" egin beharko lukeela. Norberak bere buruari eskatu beharko dio, eta bakoitzak bere apur horretatik eman beharko du, hori zentzuzkoena dela deritzot. Mundu honetan dena heziketa kontua dela esaten da. Adibidez, nori bururatzen zaio herriko kaleetan egiten duena bere etxean egitea? Nori bururatzen zaio etxeko sukaldean zigarro-mutxikinak botatzea edo etxeko altzariak apurtzea? Niri ez behintzat. Horrela hezi naute? Baliteke.

Denon artean, logikak agintzen diguna eginez, Atxabalta eroso, polita eta gure gustukoa egin dezakegula uste dut. Ahalegintxo bat egitea eskatzen dizut, besteik ez.

Inma MIGUEL



LEIBAR

arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
ARETXABAETA



Mobiliario ARENAZA

. ALTZARIAK
. DISEINUA
. APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3
Tel.: 943 77 11 76

*Gatzagan jaio baina urte asko
darama Aretxabaletan. 16
urteko alaba dauka, Leire, eta
9 urte kartzelan daraman
senarra, Kepa. Amnistia
eguna helduko zain dago,
badaki eta, lehenago ez duela
senarra etxean ikusiko.
Laguntza emateko orduan, bes-
talde, Aretxabaleta aparteko
herria dela dio, ez ei daude
atxabaltarrak bezalakorik.*



Mariasun Bengoa Kepa Urraren emaztea

■ **Zenbat urte Kepa etxetik falta dela?**

■ Hamaika irailan pasatu ziren. Bi urte ihes eginda egon zen eta Basaurin harrrapatu ostean, bederatzi urte darama kartzelan.

■ **Nola aldatu zen orduan zure bizitza?**

■ Ume txiki batekin, 5 urte zituen Leirek, bakarrik geratu nintzen eta guztiz aldatu zitzaidan bizitza. Etxeko erantzunkizuna neure gain geratu zen eta gauez hasi nintzen lanean etxea ordaindu ahal izateko.

■ **Urte hauetan guztietan zer izan da gogorrena?**

■ Gogorrena neskatala aurrera ateratzea. Zorionez, ez dut arazorik izan, baina gogorra da bakarrik alabaren kargu egitea. Bere momentu txarrak izan ditu

Leirek, baina nahiko ondo bizi izan du eta bizi du aita etxetik falta izana.

■ **Eta zuk zeuk nola bizi izan duzu Keparen falta?**

■ Momentu onak eta txarrak izan ditut eta ditut, baina beti alderdi onena ikusten saiatzen naiz, eta neure buruarekin apur bat ahazten. Familia eta lagunnen laguntza eta indarra ere beti jaso izan dut, ez daukat inolako kejarik. Horri dagokionez, Aretxabaleta herri berezia dela esan gura neuke, nik kasu asko ezagutu ditut eta atxabaltarrak bezalakorik ez daude laguntza emateko orduan.

■ **Hara eta hona Kepan atzetik ibiltzera ohitu egin da?**

■ Ohitu ez, baina pertsona egin egiten da. Niri hasie-

ran norbaitek esan balit horrela ibili behar nintzela, ezetz esango nion, ni ez nintzela hortik pasatuko. Badaukat lagun bat Kepa joan aurretik senarrak alde egin ziona, eta nik ezingo nuela egoera hori jasan esaten nuen. Ezetz? Bai horixe, hori eta gehiago ere bai.

■ **Zeuk eramaten duzu beti kotxea?**

■ Ez, azken aldian ez, besoko minez nahiko gaizki nabil eta bidaia luzea denez Coruñaara aste bukaera honetan trenean joan gara. Madrilera joaten nintzenezan txandaka eramaten genuen kotxea lau lagunnen artean. Bestela trenean eta autobusean ere asko ibili naiz.

■ **Zerk ematen dizu aurrera jarraitzeko indarra?**

■ Nik beti esaten dut Kepa amnistiarekin etorriko dela, hemendik urte betera edo hamar urtera. Kanpotik ikusita hamar urte luze egiten dira, baina nik beti daukat gauzak lehenago konponduko diren esperantzatxo. Puerton egon zenean bazeuden kalera ateratzeko sei urte falta zitzaien presoak, nik orduantxe bertan sinatuko nukeen hori Keparentzat. Alde egin zuenean, oster, urte beterako zihola esan balidate mundua eroriko zitzaidan, orduan urte bete bizitza osoa zelako.

■ **Zure eta Keparen arteko harremana aldatu da?**

■ Bai, urteekin denok aldatzen gara eta horrelako egoera batean askoz gehiago. Gu hamabostean behin egoten gara elkarre-

kin eta oso denbora gutxian gainera, beraz, ez da gehiegi nabaritzen. Aldaketa etxera datorrenean igarriko da, biok asko aldatu garelako. Dena dela, Kepa oso aguro moldatzen da egoera guztietara eta hori positiboa da.

■ Nola ikusten duzu gaur egungo egoera?

■ Uff... momentuz nahiko latz. Leku guztietan egurra ematen ari dira eta hemen konponbideak behar dira, ez egurra. Kartzelan, ETA-ren su eten garaian ez ziren gauzak gehiegi aldatu, ez behintzat onerako, orain, barrez, egoera okerrera joan da eta nola gainera.

■ Aretxabaletan ere euskal presoak Euskal Herrira plataformak indarra galdu du, zer gertatu da?

■ Orain urte bete herritarak presoan egoeraz erabat kontzientziatuta zeuden, euren eskubideen alde lan egiteko gertu. Orain

kaleko giroa beste bat da, baina presoek kartzelan jarraitzen dute eta egoera askoz okerragoan gainera. Gauzak ondo doazenean laguntza ematea samurra da, laguntza momentu txarretan erakutsi behar da. Plataforma presoak Euskal Herrira ekarteko sortu zen, beste barik, eta nahiz eta orain egoera beste bat izan ezin dira gauzak nahastu. Baietza ematen bada, aurpegia eman behar da gero, eta baietza emandako taldeei batzarretara agertzeko eskatuko nieke.

■ Zer moduz ikusi duzu astebukaeran Kepa?

■ Hobeto. Hilabete darama

Curtisen, Coruñan, eta hemen dagoenetik lehenengo aldiz ikusi dut ondo. Inkomunikatuta ere egon zen aste betez, ez telefono deirik, ez bisitarik, eta dena kontaketa batean ez zirelako zutitu bera eta Alberto Plazaola oñatiarra. 72. artikulua ezarri zieten, guztiz legez kanpoko, baina Coruñan egotea ere ez da legezkoa eta han dago. Bi preso politiko baino ez daude eta aislamentuan sartu dituzte, Kepa galeria batean dago eta Alberto beste batean, biak zulo batean sartuta 24 orduz eta ez dute elkar ikusten. Kepak esaten zidanez, gogorrena horixe da bakarrik egotea 24 orduz.

■ Animoso dago?


■ Lehenengo egunean Leire, anaia bat eta ni joan ginen eta sekula baino okerrago ikusi nuen. Orain arteko gehientsuenetan ondo ikusi izan dut, lehenengoan osteraz, erabat jota zegoen. Berarentzat, Puerto izan da txarrena, oso kartzela gogorra baita, baina oraingoan Puerton baino okerrago zegoela esan zidan. Izan ere Puerton nahiz eta aislamentuan egon patiora elkarrekin ateratzen ziren euskal presoak, hemen barrez, ez, bakarrik dago 24 orduan. Plazaola eta bera modulu batean batera jar ditzaten protesta egiten ari dira eta horregatik txapatuta daude, patiora atera barik.

■ Zerbait eskatu gura diezu atxabaltarrei?

■ Kepari idazteko, bisitek eta eskutitzek izugarriko poza ematen diote, eta Gabonak fetxa politikak dira kanpoan daudenekin gogoratzeko.

“Baietza ematen bada, aurpegia eman behar da gero, eta baietza emandako taldeei batzarretara agertzeko eskatuko nieke”

Okindegia - Gozolegia



Aretxabaleta
Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Basabe, 2 - ☎ 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.
Mitarte, 23
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

**Etxabe
harategia**

Durana 4
☎ 943 79 16 61

**Jose Mari
bodegoia**

Eguneko menua

Nafarroa, 6
☎ 943 79 20 45
Aretxabaleta

**Hies
berria**

943 79 26 99



**FELIX
PAGALDAY**

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

**Angelines
AUTOZERBITZUA**

Mitarte, 16 • 943 79 61 42



Saseta bataloiko gudari atxabaltarrak Eibarko frentean. 1936ko negua. Rakundo Alzola, Jesus Peña, Lorenzo Etxeberria, Antonio Otxoa eta Diego Urzelai.

Jesus Peña gogoratuz

Datorren abenduaren 14an "Jesus Peña, idazle atxabaltarra 1914-1937" liburua aurkeztuko da udaletxe zaharrean arratsaldeko 20:00etan. Aitor Antxia, Lorentxo Peña eta Jesus Atxa, "Latxaga" apaiza, eta beste hainbat kolaboratzailek egindako ikerketa eta bilketa lanaren ostean argitaratuko da liburua. Jesus Peña kazetariaren lanak irakurri eta mende hasierako Aretxabaleta ezagutzeko aukera paregabea.

Behar bada gerra garaian hil zelako edo behar bada jadanik famili artekorik Aretxabaletan bizi ez delako, Jesus Peña ezezaguna da herrian. Gaurko belaunaldientzat gerra garaia historiako liburuetakoa kontua besterik ez da eta urteak aurrera joan ahala liburuetan ikusitakoa ere ahaztu egiten da. Horregatik

behar bada Lorentxo Peñak, Jesusen anaiak, gerra aurretik eta gerra garaian euskararen alde lan egindako anaiaren oroitzapenak liburu batean jaso gura izan ditu.

Jesus Peña Etxeberria

Jesus, 1914ko abenduaren 25ean jaio zen Aretxabaletan. Beroa lantegian hasi zen lanean oso gazte, ba-

rruan, ordea, beste egonezin bat zeukan eta 1933. urtetik aurrera hainbat egunkari eta aldizkaritarako Argia, Euzkadi, Gure Mutilak eta Eguna, euskaraz idazten hasi zen. "Aitza" gaitzizenaz sinatzen zituen artikuluok eta gehientsuenek Aretxabaleta inguruko berriak jasotzen zituzten.

1935. urtean soldadu joa-

tea tokatu zitzaion Santanderrera. 1936ko uztailean, baimenaz etxean zegoela gerra hasi zen eta bere burua bolondres aurkeztu zuen Aretxabaletako udaletxean. Eusko gudarostean, Saseta Bataloiko partaide izan zen. Hainbat frentetan parte hartu ostean, Kantabrian preso hartu eta fusilatu egin zuten 1937ko abuztuaren 30ean.

Mende hasierako Aretxabaleta

Jesus Peña gogoratu guran kaleratuko den liburu horrek, atal bat baino gehiago izango ditu. Aitor Antxiak XX. mende hasierako Aretxabaletaren berri ematen du: herriko kale eta auzoak, udaletxeko kontakizunak, herriko jai eta erromerietako bitxikeriak, Goardia Zibilekin gorabeherak, gerra garaiako pobrezia eta errepresioa... dena jaso du liburuaren lehenengo zatian.

Jesus Atxa eta Lorentxo Peña, Jesus Peñaren anaiak, bestalde, "Oroitza-penen lurrinak" deituriko atala izenpetu dute. Aitorrek artxibo eta paper ofizialetan aurkitutako Aretxabaletaren berri ematen bazuen, bikote honek euren mutiko eta gazte denborako Aretxabaletako kontakizunak dakartza gogora. Jesus Peñaren be-

rri ere ematen dute. Dena oso era polit eta irakurterrezean idatzia, gainera.

Azkenengo atalean, Jesus Peñaren, Aitzaren, lanak batu eta jaso dira. Gure Mutilak, Euzkadi, Eguna eta Argian argitaratutako lanak dira. Lan guzti-guztiak ez badira ere, egindako ikerketa lanen ostean batutako guztiak badira behintzat.

Liburua, bestalde, Jesus Peñaren, bere familia eta lagunena, eta mende hasierako Aretxabaletako argazkiekin apainduta dago.

Ez zen idazle haundia izan Aitza, astirik ere ez zuen izan 22 urtekin hil baitzuten, baina garai gogor haietan euskaraz idatzi izana ez dio inork kenduko. Euskararen alde egindako lan isilaren ordain apala besterik ez du izan gura abenduan kaleratuko den liburu honek.



1937ko otsailaren 16ko EGUNA aldizkariko berria

Aretxabal'tarrak berriz

Kanpanzar'en 72 egun igaro. 10 eguneko opor aldi bat izan eta beriz guda ofertara elda gera, oraingo ontan Eibar'ko txanda izan saigu.

Sei egun damaskigu, eta gora bera gutxi izan degu iru edo lau "kañonazo" eta kito. Gorabera gutxi esan det, baña ezta egia. ba onera etofi diran emakume mordoak gorabera, sortu dute. Geyenakin izketaldia, izan genduen. Bialdu baño len, esaten omen diote, aratoiak jan beafko dituztela. eta umeak ere jaten asi gerala efi batzuetan, eta askoz ere obe dutela Naparalo aldera jutea. Askok ori egiten omen dute, baño geienak onera, naiz da "afatoiak" jan beafa izan.

Azkoiti aldean, kanpotar asko omen dago, Afasate ta beste efi batzuetakoak ere bai.

Beste gauz batzuek ere ba'dakigu, baña urengorako utziko degu.

Gu ondo arkitzen gerala, umore onean, eta "zerbait" egiteko gogotsu.

AITZA

(Eibar'ko guda ofetik.)

Aretxabal'tarrak berriz

Kanpanzar'en 72 egun igaro, 10 eguneko opor aldi bat izan eta beriz guda oñetara eldu gera, oraingo ontan Eibar'ko txanda izan saigu.

Sei egun damaskigu, eta gora bera gutxi izan degu iru edo lau "kañonazo" eta kito. Gorabera gutxi esan det, baña ezta egia, ba onera etori diran emakume mordoak gorabera, sortu dute. Geyenakin izketaldia, izan genduen. Bialdu baño len, esaten omen diote, aratoiak jan bearko dituztela, eta umeak ere jaten asi gerala eri batzuetan, eta askoz ere obe dutela Naparalo aldera jutea. Askok ori egiten omen dute, baño geienak onera, naiz eta "aratoiak" jan beara izan.

Azkoiti aldean, kanpotar asko omen dago, Arasate ta beste eri batzuetakoak ere bai.

Beste gauz batzuek ere ba'dakigu, baña urengorako utziko degu.

Gu ondo arkitzen gerala, umore onean, eta "zerbait" egiteko gogotsu.


AITZA

(Eibar'ko guda oñetik)



Triatloia

Datorren urterako triatloia antolatuko da bailaran. Arrasateko triatloi taldeak bailara mailako triatloia antolatuko du datorren urteko ekainaren 9rako. Oier Etxebarria antolatzaileetako bat da, eta berak jakinarazi digunez, Urkulun igeri egingo da eta amaiera, barrez, Arrasaten izango du. Oraindik hainbat arlo zehazteko dauden arren, distantzia olinpikoa izango du frogak. Beraz, zaletuok hasi zaitezte gogor entrenatzen.



Xakea

Arlutz Ak galdu eta Arlutz Bk irabazi. Bere bigarren jardunaldian Arlutz A xake taldeak galdu egin zuen Errenteriko taldearen aurka, 1,5-2,5. Lehenengoan, barrez, irabazi egin zuten, lau puntuz sailkapenaren erdialdean daude. Hurrengo norgehiagoka Grosen izango dute. Aurkari gogorra izango da Groseko taldea, izan ere, Felis Izeta profesionala talde horretako jokalaria da. Arlutz Bk, bestalde, 1-3 irabazi zuen Eibarren.



Frontenisa

Frontenis txapelketako finalak asteburuan. Datorren zapatuan 12:15etatik aurrera Iñaki Sanchez eta Kepa Garcia bikote arrasatearrak Patxi Vallejo eta Xabier Albizua bergararren aurka finala jokatuko dute. Bestetik, 3. eta 4. postuei dagokienez, hemen ere bergararrak eta arrasatearrak izango ditugu aurrez aurre. Igor eta Joseba Cusi alde batetik eta Jose Izquierdo eta Candido Urtado bestetik. Txapelketan ez da atxabatarrik sailkatu.



Mendia

Benasquera irteera Murruxorekin. Murruxoko mendizale elkarteak Benasquera mendi urteera antolatu du datorren asteko zubi-rako. Bost egunetan zehar Aneto, Pico Alba eta Maladeta mendiak igo gura dira. Tartean La Renclusako aterpean lo egingo da. Dagoeneko 10-15 bat lagunek izena eman dute urteerara joateko. Oraindik ere joan gura duenak apuntatzeko aukera izango du, mendi elkarteko kide batekin harremanetan jar daiteke.

Aitak erakutsi zion xakean eta, hamar urtekin federatu zen Aitor Alcaide xakean. Erasoko jokoa egiten duela aitortu digu, aurkaria larregi kontuan izan barik. Xakeaz gozatzen ikasi du, eta denbora gustura pasatzen du jokoan.

■ Berezkoa izan behar da xakean jokatzeke, ala ikasketak kontua da?

■ Ez dakit, batzuk xakean jokatzeke talentu naturala izan behar dela esaten dute. Beste batzuk ikasiz lortzen dela xake jokalaria ona izatea.

■ Zer du erakargarria xakeak?

■ Nire ustez joku bat da. Izugarri gozatzen dut jokatzen dudanean. Profesional mailan jokatzen denean, hala ere, kirola dela esango nuke, fisikoki oso ondo egotea eskatzen du eta.

■ Ikasteko hainbat era daude, zein da zurea?

■ Egia esan ez dut gehiegi ikasten. Xake aldizkari baten harpideduna naiz, eta bertan agertzen diren mailuen jokaldiak aztertzen ditut. Bestetik, xake entziklo-

pedietako jokaldiak ere ikasi izan ditut.

■ Ikasi daiteke xakeak gordetzen duen guztia?

■ Ez, ezin da sekula ikasi, beti geldituko da zeozer ikasteko. Adibidez, Kasparov munduko xake jokalaririk gertatuena izan dela esan izan da. Hala ere, Londresen bere espezialitatean galdu zuen.

■ Zein da zure jokatzeke era?

■ Taldekideek beti erasora jokatzen dudala esaten didate, ni bakarrik jokatzen arituko banintz bezala. Hau da, sarritan aurkariak zein jokaldi egiten duen ez dut begiratzeko, eta nik nire mugimendua egiten dut. Ezusteko ugari hartzen ditut horrela, baina asko gozatzen dut.

■ Xake partidek asko irauten dute. Nola egoten zarete horrenbeste denboran jokoan?

■ Xake partida batzuk motzak

izaten dira, baina lau orduetik gorakoak izatea normala da. Tarte horretan oso kontzentratuta egon behar da. Garbi dago, xakea benetan gustatu behar dela, horrenbeste denboran jokoan egoteko.

■ Xakea eta inteligentzia elkar lotuta doazela uste duzu?

■ Xake jokalariei matematikak eta musika asko gustatzen zaiela frogatuta dago. Nire kasuan musika asko gustatzen zait.

■ Profesionala izateko zein aukera eskaintzen du xakeak?

■ Xakeari esker ondo bizitzea oso zaila da. Profesionala izateak egunero gutxienez bost ordu ikastea eskatzen du. Eta beste kirol batzuekin konparatuta oso gutxi irabazten da.

■ Xakeak ez dauka indar haundirik gure artean. Zer egin daiteke indartzeko?

■ Heziketan eta eskoletan

landu beharko litzateke xakea. Ikasleei xakean aritzeko aukera eskaini, beste kirol batzuk egiten diren moduan.

■ Aurtengo Euskal liga hasi berri duzue, zein da aurtengo helburua?

■ Maila mantentzea izango da gure helburua. Iaz ondo ibili ziren taldeak berdin jarraitzen dute, eta beste batzuk fitxaje berriak egin dituzte. Beraz, maila mantentzen saiatuko gara.



Aitor Alcaide

Arlutz xake taldeko jokalaria

ZARAIA MENDI TALDEA MENDIOLA BURURA

Zaraia mendi taldeak etxe inguruko lekuak ezagutzeko aprobeztatuko ditu datorren zubiko egunak. Mendiola burun kanpamendua jarriko du, eta bertan pasako dituzte bost egunak. Hamabost bat gazte joango dira, eta hauekin hiru-lau bat monitorea. Inguruko mendi eta txokoak ezagutzeko aukera aproposa izango da. Kanpamenduan parte hartu gura izanez gero Zaraia mendi taldetik pasatu behar da.

LASAGABASTER-ALZOLA FINAL ERDIETAN

Lasagabaster-Alzola bikotea Gipuzkoako elkarte arteko txapelketa bikaina jokatzeko ari da. Azkeneko partiduan Azpeitiko Ikasberri taldeko pilotarien aurka 15-22 irabazi zuten, eta ondorioz, final aurrekoetara iritsi dira. Partidua etxean izango dute astebukaera honetan.

Errasti anaiek, barrez, final aurrekoetako partidua galdu egin zuten astebukaeran Intxaurrendoko pilotarien aurka. Etxean jokatu zuten eta emaitza 11-22 izan zen donostiarren alde. Hurrengoan bueltako partidua jokatu dute kanpoan.

Murrukixok batzordekide barriak proposatuko ditu

Murrukixoko mendi elkarteak urteroko batzar orokorra egingo du abenduaren 12an. Elkarrekin egingo dituen hainbat aldaketen berri eman gura da bertan. Batzordekide berriak aukeratzeaz gain, iazko balantzea, Leixargarateko aterpe txearen inguruko kontuak eta datorren urteko ekin-tzak eta dirukontuak ere aurreratuko dira.

Batzarra 19:00etan izango da Murrukixoko lokalean (Durana, 30ean). Momentuz egoitza berria egokitzen ari dira, baina egun horretarako dena gertu egotea espero dute.

Elkarrekin jakinarazi digunez, datorren urtera begira, bazkide kuota igoera txiki bat izango du. Hemendik aurrera urteko kuota 1.200 ptakoa izango da nagusien-

tzat eta 18 urtez azpikoentzat 600 pta.

Batzordekide berriak

Abenduaren 12an egingo den batzar orokorrean batzorde berria aurkeratuko da. Mendi elkarteak proposatu ditu dagoeneko batzordekide batzuk eta hauek izango dira: lehendakaria: Xabier Basabe; idazkaria: Xabier Garcia; diruzaina: Goio Arrieta; piraguismo saila: Iñigo Berridi eta Oier Aranzabal; Leixargarateko arduraduna: Imanol Etxabe; materialen arduraduna: Alberto Etxebarria eta liburutegiaren arduraduna: Oier Etxebarria. Aipatutako batzordekide batzuk berriak dira, baina ez denak, batzuk aurreko batzordetik jarraitzen dutenak baitira.



PREFERENTEAK GARAIPENA LORTU ZUEN ETXEAN

Azken jardunaldietan Enrique Nietoren mutilak ondo aritu dira zelaian, hala ere, garaipena lortzeko golak falta ziren.

Oraingoan, ostera, garaipena iritsi da. Tolosaren aurka 2-1 nagusitu zen etxeko taldea. Andoni Rodrighez bergararra eta Arkaitz Armentia atxabaltarra izan ziren golegileak. Hurrengo partidua Zarautzen aurka jokatu du Udako talde nagusiak. Partidu gogorra izango da, Zarautz sailkapeneko liderra baita. Hala ere, azken garaipen horren ondoren, indartsu zelairatuko da Enrique Nietoren taldea. Bigarren erregionalak galdu egin zuen azken jardunaldian 3-0 Zestuaren aurka. Datorren partidua, barrez, bergararren eta aretxabaletarren arteko derbia izango da Ibañan.

Almen-Uda taldeko jubenilek ere ez zuten irabazterik izan azken jardunaldian. Olarizu 3-0 nagusitu zitzairen. Hurrengoan Lagun onak taldea hartuko dute etxean.



Abenduaren 12an izango da Murrukixoko batzar orokorra

Lasai

Mirian Manteca
MASAJISTA

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta
egokitzean
diplomatuak

Tel.: 943 77 04 34

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 10 96



Gazte-gaztetatik erakutsi zuen Paulok margotzeko afizioa. Marrazki sinpleetatik koadroak margotzera iritsi zen, eta gaur egun oleoz paisajeak margotzen ditu gehienbat. Hala ere, erretratu batzuk ere margotu izan ditu.

Paulo Bengoa

"Normalean paisajeak margotu izan ditut"



- Zer margotzea gustatzen zaizu?
- Batez ere, paisajeak.
- Nondik datorkizu zaletasuna?
- Ez nago ziur, baina osabagandik uste dut.
- Margo berezirik?
- Erretratuak.
- Margotzeko teknika gustukoena?
- Oleoa.
- Margo klaseak zer moduz?
- Aurten aurreko urteetan baino motelago, ikasle bakar bat daukat momentuz.
- Artista gazterik bada herrian?
- Bai, dexente.
- Margotzeko emakume biluzi bat, paisaje bat ala bodegoi bat gurago?
- Paisajeak eta bodegoiak margotzen ditut, baina emakume biluzirik ez dut oraindik margotu.
- Pintore bat.
- Asko, inpresionistak gustatzen zaizkit.
- Zein kolore mota erabiltzen duzu?
- Kolore biziak batez ere.
- Erretraturik egin duzu sekula?
- Bai, orain bi dauzkat egiteko.
- Margo lagunak taldea bizirik dago?
- Bai, bizirik dago. Noizean behin elkartzen gara taldekideok.
- Margo barik zelakoa izango litzateke zure bizitza?
- Ez dakit, gazte-gaztetatik margotu izan dut eta.
- Egin duzun azken koadroa?
- Debako lehiaketan egin nuena.
- Eta gehien gustatu zaizuna?
- Gure baserria, Aizkorri gainean dela margotu nuenean.
- Margotzeko urtaro bat.
- Udazkena.
- Etxean zure koadrorik bai?
- Amaren etxean bai. Horma guztiak nire koadroez apaindu-ta daude.
- Margotzeaz gain, zerrek betetzen du zure denbora?
- Saretxok, abididez.
- Zertan ibili zara Saretxo informatika elkarteetan?
- Laguntzen aritu naiz, ordenagailuak jarri...
- Ordenagailuz margotzen duzu?
- Ez, baina ikasteko gogoia daukat.
- Noizbait ordenagailuak ordezkatzuko ditu zure oleoak?
- Ez, arlo desberdinak dira. Biak elkartu daitezkeela uste dut.

PAGALDAI

**Opari denda
Lurrindegia**

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

BENGOA URDAITEGIA

*Bertako okelak eta
mortzilak*

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79

GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otolora kalea
Eliza aurrealdean
Tel.: 943 77 13 57



Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



Mitarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte

gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagatik



Astero



Bailaran



Euskaraz



Doan

Gaurtik aurrera...

Goienkaria
Debagoieneko Astekaria

astero, zure eskura.



GOIENKARIA, DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

PUBLIZITATEA JARTZEKO: 943 71 23 91

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Abenduko lehena

Abenduaren lehena, eguakotxa. Aretxagazetako 203. zenbakia kaleratu da dagoeneko. Agian nik idatzitako txoko hau irakurtzen arituko zara, irakurle. Badakit batzuk irakurle fidelak zaretela, beste batzuk santuak ikusi eta titulo haundienak irakurrita nahikoa izaten duzue. Garbi dago, danok ez garela berdinak. Batzuk kirolari onak dira, eta etekina ateratzen diete euren abileziei. Adibidez, aurrekoan Donostiako maratonia egin zutenek ez dute merito makala. Berrogeita bi km gelditu barik korrika, Donostiako kaleetan zehar buelta eta buelta. Ur pixkat edan eta aurrera. Halaxe aritu ziren, **Fernando Uribealgo**, **Haritz Iturbe**, **Ramon Eraña**, **Andoni Miguel**, **Jose Jabier Irure** eta **Jose Luis Arroiabe** gellao-tarra. Guzti guztiek ez dut uste bukatzea lortu zutenik, baina tira ondo dago. **Joseba Larrinaga** ere laguntzen ibili zen. Erbi lanetan lehenengo eta gero lagunei animoak eta laguntasuna ematen.

Beste batzuk musikarako abilezia dute. Horrela erakutsi zuten aurrekoan **Maitane Ayala** atxabaltarrak eta **Argiñe Kamara** zumaragarrak. Biek batera Kan-

tabriako nazioarteko akordeo txapelketan hartu zuten parte joan den asteburuan. Bigarren saria irabazi zuten, "Duo medio" deritzon modalitatean. Zorionak bikote!

Kantabrietik bailarara egingo dugu salto, eta zer eta komunikabideetara. Betiko letxe medioak aipatuko ditugu. Atzo Goitbn Atxabalta izan zen mintzagai. Alkatearekin berbetan saioan, **Angel Bergaretxe** elkarriketatu zuten hainbat kazetari eta herritarrek. **Saioa Ojanguren** arrasatearrek zuzendutako programan, **Mirari Altube**, eta **Xabier Sarasua** zuzenean aritu ziren, alkateari herriko kontuez galdetuz. Herritarrek ere euki zuten telefonoz parte hartzeko aukera. Saio txukuna atera zen azkenean.

Irratiari tartea eskainiz, kazetari atxabaltar bat lanean hasi da Arrasate irratiarian. **Maria Agirre** da lankide berria. Badakizue non entzungo duzuen, 107.7an.

Telebista, irratia eta zer gelditzen zaigu esateko? prentsa idatzia, bailarako astekari berria. Zer gustatu zaizue? baietz espero dugu. Euskaraz irakurtzeko, hortxe duzue aukera berria.

Bejon deizuela!



Bizitzaren gesala

Pablo Antón Marín Estrada
Elkarlanean, 2000
Apirila saila; 3

Nobela honetako narratzailea arrantzale izan nahi duen mutil gaztea da. Itsasoak asko erakartzen du eta lehenik aitari lagunduz bajurako itsasontzi txiki batetan hasiko da, gerora urrutira doan arrantza ontzi handi batetan ibiltzeko. Arrantzalearen bizitza oso ongi deskribatzen da liburuan, bere gogortasuna agerian jarritz eta arrantzaleen arteko elkartasuna erakutsiz.

Liburu honek Argialetxe Elkartuak antolatutako bigarren Apirila saria irabazi du. Asturieraz idatzitako liburua da eta espainiako zazpi hizkuntza minorizatuetan argitaratzen dute argialetxe hauek. Irakurle gazteei zuzendutako bilduman argitaratua izan bada ere irakurle helduek ere gustora irakurriko duten liburua dela iruditzen zait.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

- Maite aurreko baten ikusi ~~noiz~~ piszinan. (txarto)
- A bai? ... eta ze pentsau jatzun... politta ezta?
- Maite aurreko baten piszinan ikusi zinduten. (ondo)
- A bai? Goizien ala arratsaldien ikusi ninduzun?



ABENDUA

8-31

■ ESKAPARATE
LEHIAKETA

Kultura sailak antolatuta-ko eskaparate lehiaketa ikusgai egongo da herri-ko komertzioetan.

6-10

■ PIRINEOETARA
URTEERA

Murruxiko mendizale elkarteak Benasquera urteera antolatu du abendu-ko zubirako.

■ MENDIOLA BURUN
KANPAMENDUA

Zaraia mendi taldeak Mendiola Burun kanpamendua jarriko du.

11 ASTELEHENA

■ AURKEZPENA

Erlantz Urtasu liburuaran aurkezpena Loramendi elkartearen eskutik. "Euskara eta historia". 19:00etan udaletxe zahar-reen.

12 MARTIZENA

■ BATZAR OROKORRA

Murruxiko mendi elkarte-ak batzar orokorra egingo du 19:00etan Murruxikoko lokalean (lehen Toki ona zegoen lekuan).

14 EGUENA

■ LIBURU AURKEZPENA

Jesus Peña, gerra garaiko berri emalearen liburua- ren aurkezpena egingo da udaletxe zahar-reen 20:00etan.

15 EGUAKOTXA

■ KONTZERTUA

Uztail oparo ostean kontzertua egongo da 22:30ean udaletxe zahar-reen.

16 ZAPATUA

■ GALARTZAKO JAIK

Zapatuan kanpai errepikak, jolasak eta marrazki lehiaketa egongo dira. Arratsaldeko 18:30ean auzoko hildakoen alde meza. Ondoren auzo afa-ria eta dantzaldia.

17 DOMEKA

■ GALARTZAKO JAIK

Kanpai errepiken ostean 12etan meza emango da. Ondoren lurcha eta txiki- teoa.

■ TXISTU KONTZERTUA

Leizarra musika eskolako txistularien kalejira eta udaletxe zahar-reen kontzertua, 13:00etatik aurrera.

16-17

■ BIDEZKO MERKATARI-
TZAREN ERAKUSKETA

Hiru txek antolatuta bidezko merkataritzako produktuen erakusketa egongo da udaletxe zahar-reen. Zapatuan goiz eta arratsalde, eta domekan goizez.

18-22

■ MUSIKA ESKOLAKO
KONTZERTUAK

Egunero 18:00etatik aurrera Leizarra musika eskolan hainbat musika emanaldi.

LEHIAKETAK

■ ESKAPARATE
LEHIAKETA

Herriko komertzioei zuzendutako eskaparate lehiaketa martxan jarri du aurten ere kultura sailak. Abenduaren 8tik 31ra bitartean jarri beharko dira eskaparateak ikusgai. Imaginazioa, orijinaltasuna eta gabon mezua kontuan hartuko dira saria ematerako orduan. Erabakia urtarrilaren 6an jakitera emango da. Sariak 1.a 35.000 pta, 2.a 25.000 pta eta 3.a 15.000 pta.

IKASTAROAK

■ MARGO IKASTAROA

Margo lagunak elkarteak margo ikastaroa antolatu du. Marrazten eta oleo teknikak erakutsiko dira. Oinarrizko ikastaroa izango da eta Paulo Bengoak emango du. Astelehenetik ostegunera emango da, (aste batean bai eta beste- an ez) egunean ordu eta erdi, 19:00etatik 20:30etara. Interesatuok Margo elkartetik pasa zaitezke (kultur etxea).

BALTAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

Zorion agurrak



Mikel Arroiabe
Abenduak 1
Munduko onena ez izan arren, aupa Orio! Zorionak eta ondo pasau lagun-en partetik.



Sandra Labrador
Abenduak 2
Zorionak etxekoan partetik eta muxu haundi bat.



Elene Berezibar
Abenduak 2
Zorionak eta ondo ondo pasa urtebetetze egunean. Etxekoak.



Ander Lopez de Armentia
(2 urte)
Abenduak 3
Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partetik.



Nagore Uriarte
Abenduak 4
Etxekoan partetik eta Nahia eta Anen partetik zorion bero-beroak.



Jabier Uriarte
Abenduak 5
Zorionak etxeko guztion partetik eta ondo pasa eguna.



Jose Mari Ugalde
Abenduak 5
Zure zain egongo gara trago bat Zorionak kuadrilakoan partetik.



Mirari Ayastuy
Abenduak 12
Zorionak etxekoan eta batez ere Josuren partetik.



Felis Beltran de Heredia
Abenduak 13
Hogeita hama... zenbat? Zorionak Mirari eta Alaitzen partetik.



Aritz Fernandez Sillero
Abenduak 18
Zorionak etxeko guztien partetik zure lehenengo urtebetetzean.

Atal honetan zorion agurrak argitaratu nahi izanez gero, Aretxagazetara zuzendu. (Durana, 11 2. solairua).

Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Telebista 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkarte 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 71 26 28
- Kultur-Etxea 943 71 10 27
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Mankomunitatea 943 79 30 90
- Murruxiko M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Ortzadar 943 79 01 84
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikast. 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

Udaltzaingoa

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 02 02
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15

Txistuak • Txaloak

Aretxagazetaren etorkizunari buruz informatzeko alde bate-tik, eta Goienkariaren kaleratzearen berri emateko bestetik, aurreko astean batzar informatiboa egin zuen Aretxagazetak. Zoritxarrez, 450 bazkideetatik 10 bakarrik etorri ziren. Informazioa falta izaten delako protesta egiten da lehenengo, eta gero ia inor ez da batzarretara agertzen. Zortzi urte luze-tan Aretxagazetak herriko informazioaren berri eman du. Orain, ostera, gaurko aldizkari formatua izateari utzi egingo dio, eta Goienkaria astekaria sortuko da. Badirudi bazkide batzuei herriko aldizkariaren etorkizuna ez zaiela axola. Txistua argitasun falta kritikatzan dutenei, eta gero batzarretara etortzen ez direnei.



Jaiotakoak

■ **Jone Triviño Madinabeitia**
Azaroaren 18an.

■ **Amaia Esperesate Arenaza**
Azaroaren 19an.

■ **Eider Martinez Dorcel**
Azaroaren 21ean.

■ **Danel Seijo Fernandez**
Azaroaren 25ean.

Hildakoak

■ **Juan Martinez Feijoo**
Azaroaren 22an. 55 urte.

■ **Rosario Elorza Heriz**
Azaroaren 24an. 67 urte.



U Erregionala 60. hamarkadan

da sortu zenetik, hainbat presidente, entrenatzaile eta jokalaririk pasatu da kirol elkartetik. Futboleko taldeak ere makinatxo bat izan dira. Gaurko hau 60. hamarkada bukaerako erretratua da, orduko erregional mailako taldea, hain zuzen bezala. Bixente Etxeandia zen entrenatzailea, baina ez da argazkian ageri. Jesus Aldai

taldeko jokalariek kontatu digunez, orduko afizioa oso fidela zen. "Herri gehiena joaten zen Ibarra partiduak ikustera".

Erretratuko jokalariek, berriz, honetxeik izan ziren:

Behean ezkerretik esku-mara: **Zubia (ordezko atezaina), Jabier San Migel, Jesus Aldai, Jesus Mari Arrese, Pablo Aranguren, Angel**

Garciaetxabe, Beltran, Abel Saez.

Behean ezkerretik esku-mara: **Juanito Lazkano, Jabier Elkoro, Jose Luis Zubiria, Angel Ramos, Jesus Mari Gonzalez, Pedro Eskibel (masajista).**

Argazkia: Ramon Elkoro.
Informazioa: Ramon Elkoro, Jesus Mari Arrese, Jesus Aldai.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

TABERNA eta JATETXEEN GIDA


Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

Express akeitegia



Santa Kurtz, 16
☎ 943 79 23 43 zure gustoko giroa

Gurea taberna

Jatetxea eta
taberna
GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 943 79 20 64

Dorleta taberna

Dorleta

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABALETA
☎ 943 79 94 15


Arlutz taberna



Gustoko musika


Mitarte, 16
Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

Mitartegarai



Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 17 51



Mendiola erretegia



*Bazkariak
eta afariak*

*Astelehenetan
itxita*

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Baster alde jatetxea



**Sasoiko
jakiak
giro
onenean**

Galartza auzoa
☎ 943 79 24 58
ARETXABALETA

Amets taberna



Taberna eta kafetegia

Iparragirre, 4 • 943 79 01 29
Aretxabaleta

Basabe jatetxea

Menu eta afariak



Basabe poligonoa • 943 79 91 84

Josu harategia/taberna

*Josu
harategia
taberna*

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08



Taberna Berri

**Taberna Berri
jatetxea**



Durana, 26 • ARETXABALETA
☎ 943 79 20 67

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

fordmondeo 2000 berria

lider naturala



Motore berriak:

TDDi	-	90 cv
TDDi	-	115 cv
1,8 i	-	125 cv
2,0 i	-	145 cv
2,5 i	-	170 cv

**MUGARRI**

Tel.: 943 79 07 54 • jefeventas@mugarri.es

Araba, Etorbidia, Z/G • ARRASATE

